



## FUNTZEZKO ALIANTZAK

### ➤ Arropa biltzeko prozesuan hainbat elkarte eta enpresekin aliatuko gara:

Bilboko alde zaharrean dagoen **bigarren eskuko dendaren** arroparen jabea taldearen laguna da, beraz berarekin kolaboratuko dugu. FFF-ren bidez (Friends, Family and Fools) ehunen eta arropen gastuak kubrituko ditugu.



**Micolet** bigarren eskuko arropa saltzen duen online denda bat da. Bertan, arropa mota ia berriak erosi ahal dira, modaren arabera. Online ere saldu daitezke erabiltzen ez diren arropak, haiek arduratzen dira prozesu guztiaz. Bigarren eskuko arropa saltzen duen katerik ospetsuenetako bat da herrialde mailan, eta ezagun egin da, kontsumo jasangarriago baten tedentziari hasiera emanez. Horregatik, merkataritza honekin lankidetzan aritzea funtsezkoa da, elkarri laguntzeko, antzeko proposamen bat baitugu.

**Koopera** ekonomia sozial eta solidarioko erakundeen sarea da, **Cáritas**-i lotutakoa. Ingurumen-zerbitzuetako, berrerabilpeneko, kontsumo iraunkorreko eta helburua betetzen lagun dezaketen beste zerbitzu batzuetako enpresa-jarduerak garatzen dituen sare bat, prestakuntza eta enplegua gizarteratzeko tresna gisa hartuta, gizarte ekologikoagoa, inklusiboagoa eta solidarioagoa eraikiz.

Berrerabiltzeko plantek jendeak edukiontzietan, garbiguneetan eta halakoetan uzten dituzten materialak prozesatzen dituzte. Bigarren eskuko Koopera Store dendetan eskuragarri berrerabilitako gaiak, eta bertatik dohaintzak egiten dira gehien behar dutenentzat; dagoeneko 7.000 dohaintza baino gehiago. Gainerako gaiak berrerabili, birziklatu edo prozesatu egiten dira energia ekoizteko.



